

# Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko martxoaren 3a / VI. urtea / 168. zenbakia

## Aukeran, etxe osasungarria

Zubian barna

BINGEN AMADOZ


Geobiologia edo bizilekuaren zientzia. Antzinako tradizioaren eta gaur egungo ikerketa zientifikoaren arteko zubia da geobiologia, bizilekuaren zientziaren aztertzaileen arabera. Bizilekuaren kokapena, etxea eraikitzeko erabilitako materialak eta nora begira dagoen dira, besteak beste, geobiologoaren aztergai. Etxerik zoragarriena ere, bertan bizi direnentzat amesgaizto bihur daiteke lurrazpian ur-zainak edo Hartmann lerroak baldin badaude. Aukeran, beraz, hobe etxe osasungarria.



### Zubian barna

**E**rants bihurtu ziren su-txinparta eta dantza-soinuen artean, in-hauteri-astearte gauean, gure erresuma zaharreko gaizkile izandakoak. Hantxe bukatu ziren Miel-Otxin, Aldabika, Txolin, Lukas de Aierbe eta beste hainbat lapur, hiltzaile eta iruzurgileren laisterraldi eta gaiztakeriak. Suak den dena garbitzen omen du eta horixe izan da lehen egiazko gizakiekin eta oraingoan memori kolektiboan gelditu diren pertsonaien maltzurkeriak ezabatzeko erabiltzen den sistema. Libratu gara beraz, aurtengoz ere izpiritu txarrez. Miel-Otxini aurpegia kendu eta horixe izan zen berataz salbatu zen barkarra. Hara bestela, Ekialde urrunetik inhautei asteartez ekarri diguten gaur eguneko gaizkilerik bilatuenaren luzezabal bezain harrizkoarena. Hiru punta-ko txapel-okarren buruzagi izandakoaren ibilerak ez dira iadanik inorrenzat sekretu. Etorkizunari begira jarri, ordea, eta horretan galderak sortzen zaizkigu, ugari gainera. Usainen fina izan ohi duten epaileek ze lege-hauste leporatuko diote? Gobernuen arteko paktuetatik kanpo zerbait geratuko al da herri soilaren mendeku-nahia pittin bat asetzeko?

Arazurikoez zerri laisterketari bati bere izena eman zioten. Txerri gizajoa! Aizu! Bakoitzak bere erara zigortzen ditu maltzurkeriak, agian legeak egiten dituztenak, eta lege horiek bete-arazten dituzten horietariko batzuekiko mesfidantza galanta dagoelako. Nola ulertu bestenez, Roldanen inguruko laguntzaileak eta parekoak oraindik karguz libre egotea? Vera eta San Cristobalen gainekoak oraindik ere epaitegietara deituak ez izatea zuzena al da? Barnean ez daude egon beharko luketen guztiak. Inorri etzaio hori ezkututzen. Modu berean, zer egiten dute barnean, kalean, inhauterietako parrandetan gozaten ibili beharko luketenek? Ze mina egin diote gizarteari, militarismoa baztertu nahi dutenak, ejertzitoarekin eta estatu arrotzarekin kolaboratu nahi ez dutenak? Ze kalte eragin dio inorri bere herriko inhauterietan, parranda ibili ondoren tiroz atxilotu duten intsumitu elizondarrak? Lege-gile, epaile eta haien morroiek ez dute lastoa eta garia bereiztu nahi. Batera hartu eta nahastu nahiko lituzkete gaizkia eta Gaizka, Altsasuko Juan Tranposo eta Donibaneko Juan Cruz, diruzale ustelduak eta pakezale intsumituak. Eta, jaun-andere mozolo horiek, lehenbizikoak ez dira gustokoak eta bigarrenak, berriz, herrikideon HARROTASUNA.



## GUERE AUKERAK

### ANTZERKIA



**Trokolo** antzerki taldeak 'Columbina enamorada' izeneko obra taularatuko du gaur ostirala, martxoak 3, Zizur Nagusian. Bertako udalak antolatutako zirkloaren barruan, gaueko 10.00etan hasiko da, Kultur Etxean. Sarrerak 400 pezetan salduko dituzte.

**'Non dago ortzadarra?'** izeneko antzezlan taularatuko du Txirristra taldeak igande honetan Iruñean. Nafarroako Antzerki Eskolak antolatuta, arratsaldeko 6.00etan hasiko da Eskolan bertan eta haurrentzat zuzendua dago. Sarrerak 250 pezetan salduko dituzte.

### ZINEMA



**'Lunas de hiel'** izeneko filmea eskainiko dute igande honetan, martxoak 5, Iruñeko Gaztetxean. Eguzki Bideoak programazioaren barruan, arratsaldean izanen da. Aurretik Martxoaren 8aren inguruko laburmetraiak botako dituzte. Sarrera dohainik.

**Zinema Mexikarrari** buruzko zirkloaren barruan 'Fe, esperanza y caridad' izenburuko pelikula emango dute heldu den asteartean, martxoak 7, Iruñeko Olite Zinemaren. Nafar Ateneoak antolatuta, arratsaldeko 8etan hasiko da eta sarrerak 350 pezetan salduko dituzte.

### BESTELAKOAK



**'Euskal Unibertsitaterako bidean'** gaiari buruz mintzaldia antolatu du heldu den astearteko, martxoak 7, Iruñeko Zaldiko Maldiko Elkartek. Jose Ramon Etxeberria EHUko Fisika irakasle ohiak eta Mikel Lasarte Nafarroako Unibertsitate Publiko IAeko ordezkaria eta Klausurako kideak hartuko dute parte. Arratsaldeko 8.00etan hasiko da.

**Trabuko** musika taldeak kontzertua eskainiko du bihar larunbata, martxoak 4, Goizuetan. Korrika Kulturalaren egitarauaren barruan, gauerdiko 12.00etatik aurrera joko dute, herriko pilotalekuan.

**'Kobazulo majikoen ibilaldia'** gairi buruzko mintzaldia eta diapositiba emanaldia eskainiko du Antxon Iturriza bidaiari eta kazetariak. Nafarroa Kirol Elkartek antolatuta, arratsaldeko 8.00etan hasiko da, Elkartek Jarauta kalean duen egoitzan.

## NAFAR KRONIKA

GAIZKA ARANGUREN


### Nafarzaletasuna

Hitz hauek irakurriak izanen direnerako, Nafarkaria honetan idazten dugun bi kazetari espetxeak izanen gara. Egoera honek, ñabardura berezia emanen dio asteroko argitalpen honi, Juan Kruz Lakastaren bitartez, ostiraleroko izanen duzue barruan gertatuko denaren berri, eta bertze txoko honetantxe, karrikan (Nafarroa Garaian nahiz Iparraldeko herrialdeetan) gertatzen denaren koadroa pintatzen saiatuko gara barruko ikuspegitik begiratuta.

Ondorengo hilabeteetako egoera bitxi sarkastiko honen berri eman ondoren, heldu diezaiozun gaurko gaiari. Nafarzaletasuna.

Afera terminologiko hutsatzat joa izan den arren, ESPAINIARZALETASUNA deskribatzeko erabili izan den 'Nafarzaletasuna' edo 'Navarismo' hitzaren adierazpen okerra agerian jarri nahi nuke. 'Navarra es una colonia francesa y española' liburuan argiki erraiten den moduan, mendeetan zehar 'Nafarzale'

hitza independentziazalearen sinonimoa izan da. Nafarroaren nortasunaren defentsan aritzea, espainiar edo frantses izaeraren ukapenean oinarritzen denetik, hauekiko etengabeko kontraesanean jardutea da.



UPNkoak ez dira Navarristak, ez dira Nafarzaleak, Espainiarzaleak baizik. Erregio-zaletasuna, sekula nazioak izan ez diren Estatuak nazionalizatzeko bidea da. Aizpunek navarrista dela erraiten duen aldioro, gezur biribila, galanta, ahoskatzen ari da. Espainolismoa Nafarroan errotereko erabili izan da nafarzaletasunaren mozorroa. Terminologia horren onarpena independentziazaleen aldetik, urte aniztan errepikatutako hutsa

da; oraino errepikatzen dena.

Duela zenbait urte, hala heldu zitzaigun berria bederen, Baxe Nafarroako hainbat notable, UPN bezalako ekimen batek Arnegitik iparruntz ukan zezakeen arrakastaz mintzatu zen. Aztertu be-

harreko aukeratzat jo zuten, eta hartan gelditu. Eta hara zalantza: Baxe Nafarroan UPNren antzeko ezer eratzuz gero, ez al luke bere ezaugarri nagusitzat nafar hizkuntza bera? Ez al zen sortuko Nafarroa Garaiko UPNn, betidanik itzalean

egon den kontraesan historiko eta geopolitikoa? Ez al zen sortuko Ibañetaz gaindiko harreman politikoen hustutze beharra? Eta erregionalismo hori, ez al zen bilakatuko nafar nazionalismo —Baxe Nafarroan bederen— denboraren poderioz? Eta ez al du behin eta berriro errepikatu Aizpunek berak 'Nafar nazionalismoa Euskal nazionalismorik bilakatu dela beti?' Nork du bere burua nafarzaletzat jo behar? Leringo Konteak?

## AHAZTU GABE!

### IPAR ESKIA



**Ipar Eski Zeharkaldia** antolatu dute Sakanako Kirol Batzordeak eta Sakanako Mendigoizaleak taldeak igande honetarako, martxoak 5. Lizarraga-Urbaşa ibilaldia egingo dute elurrean barrena, azken egun hauetan botatuko elur jausiak aprobetxatuz. Goizeko bederati terdietan geratuko dira bertan partehartu behar duten guztiak, Arbizuko udalean. Ibilaldia egin nahij duenak izena aurretik eman behar du Arbizuko udalean bertan, goizeko ordutegian. Osotara, ibilaldiak 16,3 kilometro ditu eta hiru orduko iraupena iragarri dute osoa amaitzeko. Inskripzioa 400 pezeten truke egingo da. Antolatzaileek zenbait azalpen garbi utzi nahi izan dituzte ibilaldiaren aurretik, gero arazoak egon ez daitezkeen. Batetik, ez da konpetiziozko zeharkaldia izanen, ibilaldi bat baizik. Era berean, horretarako antolatu den autobusak partaide guztiak Arbizutik Lizarragako Tunelaraino igoko ditu eta zeharkaldia amaitu eta gero autobusa Urbanan izanen da partaide guztiak berriro Arbizura eramateko. Era berean, eta eguraldiaren aldaketak ikusita, zeharkaldia soilik elurrak irauten badu egingo dela adierazi dute, alde honetatik arazoak espero ez arren.

## ASTEKO PERTSONAIK



**Santiago Cervera**  
UPNko zinegotzia



**Angel Garcia**  
Apaiza

UPNko bozeramailea Iruñeko udalean eta Senatorea Madrilen, dagoen hauteskundetan Nafarroako hiriburuko alkategaia izanen da Santiago Cervera, UPN bere alderdiak konfidantza eman baitio. Alkate ateratzen bada, eta aukera ugari daude horretarako, orain arte kargu horretan izan den alkaterik gazteena izango litzateke, gutxi barru 30 urte beteko baititu. Dagoeneko azaldu du ez duela Jaimek jarraitu duen politika bera egingo, postua lortzen badu, noski. Bere asmoa krispazioa eta tentsioak ahal den neurrian ebitatzea dela azpimarratu du, hori baita, bere hitzetan, alkate baten lana. Era berean, akordioak egiteko orduan norekin egin daitezkeen oso garbi duela zioen. Maiztatik aurrera hori dena ikusteko aukera izanen da.

Bakearen mezulariak mugimenduaren burua den Garcia apaiza izan da aste honetan Iruñean, ezaugarri bereziak dituzten haurren adopzio kanpainari buruz hitz egiteko. Kanpaina hau Estatu mailan jarri dute martxan, haur seropositiboak, Down sindromea eta burmuin-paralisia dutenak adoptatzeko. 600 haur dira egoera horretan daudenak eta dei ugari izan dituztela azpimarratu zuen Garcia, Nafarroatik egingakoak ere. Nafarroako Gobernuak bat egin du kanpaina honekin eta 10 69 00 telefonoa jarri du martxan informazioa emateko. Nafarroako datuak ere eman zituzten; 1987tik horietariko 7 haur adoptatu dira eta beste 27 hartu dira familiatan. Arazorik gabeko haurren adopzioei dagokienez, iaz 195 eskaera izan ziren eta 29 haur entregatu zituzten.

## ADI!

### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

### Iruñea

#### Martxoaren 8a ospatzeko Egizanen ekitaldiak

IRUÑEA

Labrit pilotalekuan gaur izango den mitin jaialdiarekin eta hainbat herritan izango diren ekitaldiekin hasiko dira asteburu honetan Egizan talde feministak martxoak 8ren inguruan prestatu dituen ospakizunak. Iruñean, esate baterako, asteazkenean hasi ziren ekitaldiak, Hizkuntz Eskolan egin zen 'Bertsolaritza eta Emakumea' saioarekin. Bertan parte hartu zuten Estitxu Arozena, Maddalen Lujanbio eta Iraixe Ibarra bertsolariek. Atzo osteguna ere 'Emakumea eta errepresioa' gaia hartuta hitzaldia eman zuen toki berean Arantza Zulueta, Torturaren Aurkako Taldeen ordezkariak lagundurik.

Gaur mitin-jaialdia izango da, beraz, Labriten, eta parte hartuko dute Palestinako Soraida Husseinek eta Egizaneko partaideek. Presoei omenaldia egingo zaie eta antzerkia eta trikitixa izanen da ekitaldiaren zehar. Bihar, martxoak 4, afaria antolatu dute Arrano Beltza elkartean, eta Txantrean Euskal Ferminismoari buruzko mintzaldi bat izanen da.

Bestalde, Sakanan, gaur hasiko dira ekitaldiak, Arbizon izango den kontzertuarekin eta Altsasuko bi institutuaren antolatu diren hitzaldiekin. Afarria ere izanen da Burundako herrian, eta Etxarri-Aranatzen, hilaren 8an, manifestazioaren ondoren, afaria prestatu dute Egizanekoek. Iturriren, bihar, hitzaldia, pelikula eta afaria izango da, eta Elizondon, gauek 8a bitarte, gai honi buruzko liburuen erakusketa paratuko da liburutegian. Bihar, Elizondon berean, Baztango neskatilen arteko rugby partidua izanen da, eta arratsaldean trikitixa eta afaria.

Tafallan ekitaldiak prestatu dituzte egun hauetan zehar, eta gaur kontzertua izanen da. Bihar larunbata, antzerkia eta salatzen erakusmahaiak paratuko dira, eta hurrengo egunetan kirolak, pelikulak eta hitzaldiak izango dira Kultur Etxean. Agoitzen ere hilaren 10an egingo da euskal feminismoari buruzko hitzaldia.

Jardunaldien azken ekitaldi gisa, manifestaldia izango da martxoaren 8an Etxarri-Aranatzen, Elizondon, Tafallan, Tuteran eta Iruñean. Sakanako herrian plazatik aterako da arratsaldeko zortzietan, eta Baztangoan eguerdia izango da ordua. Tafallan ere arratsaldeko zortzietan abiatuko da manifestazioa Las Pulgas plazatik, eta Tuteran, Foruen plazatik. Iruñean Gazteluko Plazan bilduko dira manifestatzaileak.

### Aldude



Alduden izango da Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehen saioa.

L. E.

## Txapelketako lehen saioa

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Aldudek jasoko du igande honetan Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehenbiziko saioa, arratsaldeko 4etatik aurrera, bertako Kultur Etxean. 24. edizio honek iaz hasitako moldeari jarraituko dio puntuazioak eta kanporaketak erabakitzean, eta hamasei bertsolariek bi aukera izanen dituzte Leitzako finalean sartzeko. Horrela, egin behar diren bi saioetako lehen biak zuzenean joanen dira finalera, eta azken biak kanpoan geldituko dira. Gainontzeko zortziak Barañainen lehiatuko dira eta hortik aterako dira finalerako txartela eskuratuko duten bertsolariek.

Aldudeko kanporaketa orekatua izanen da oso, gazteak eta berteranoak, txapeldun izandakoak eta lehendabiziko aldiz parte

hartzen dutenak nahasiko direlako. Xalbador II, Ernest Alkat, Fermin Mihura, Jean Pier Mendiburu, Manolo Arozena, Xabier Silveira, Amaia Telletxea eta Xabier Legarreta ariko dira aurrera, ondoko lana betetzeko: hiruna bertso zortziko handian, hiruna zortziko txikian, bakarkako lana —lau oinak emanda bertso bat, hasierako puntua emanda bertso bat, hitz bat gaitzat emanda bertso bat nahi den neurrian—, eta kartzelako lana —bukaera bat emanda bertsoa osatu, eta gai bati bertso—.

Aurtengo berrikuntzarik aipagarriena izan daiteke bi gazteren presentzia, Xabier Legarretak eta Jose Manuel Leitzak lehen aldiz parte hartuko baitute. Legarreta Goizuetako bertso eskolako da, eta eskola honen arduraduna da gaur egun. Kixugilea da lanbidez. Joxe Manuel

Leitza ezaguna da Nafarroan bertso paperetan eskuratu dituen sari mordoa dela eta. Arbizuarra da eta Euskal Filologian lizentziatuta. Azpimarratu behar da bi gazte hauen jatorria, orain arte Bortzirietako bertso eskolak eman baititu —txapelketari begira, jakina— fruitu bakarrak.

Epaimahaian ere aldaketak badira, aspaldiko partez, eta bi kide berri izango ditu iaz gazteen kritikak jaso zituen taldeak. Hain zuzen bi partaide gazte —Jon Abril eta Patxi Larretxea— egin behar izango dute, betikoenekin batera, bertsoen maila eta balioa epaitzeko lana.

Hurrengo kanporaketa Donezteben izanen da, martxoaren 5ean, eta finalerdia Barañainen, zazpi egunen buruan. Finala Leitzako Amazabal pilotalekuan jokatu da apirilaren 2an, igandea.

### Bera

BERA

#### Elkarrik antolatutako mahaingurua Antsonen

Elkarri gizarte mugimenduak topaketa antolatu du, 'Nafarroa gaur eta etorkizunean' izenburuarekin, gaurko, martxoak 3. Berako Antsonen jaiez izanen da, arratsaldeko 7etan hasita. Mahai baten inguruan arlo guztietako ordezkariak bilduko dira gai honetaz solas egiteko eta Joseba Igarabide Xorroxin Irratiko zuzendariak egingo du moderatzaile lana.

Partaideak hauek dira: Jose Luis Senper (EA), Iñaki Gogortza (HB), Jose Luis Etxegarai (EAJ), Jose Mari Arribillaga (ELA), Julen Mitxelorena (LAB), Lourdes Indaburu (EHNE), Erramun Martiarena I-

kastolako zuzendaria, Jose Mari Irazoki Lanbide Eskolako zuzendaria, Jose Mari Rodriguez eskola publikoko zuzendaria eta Pello Apezetxea apezka.

Hasieran partaide bakoitzak bost minutu izanen ditu gaiari buruz bere iritzia emateko, eta iritzia gehiegi errepika ez daitezkeen, gaia bakoitzari dagokion ikuspuntutik azter dezaten eskatu diete antolatzaileek: sindikalista lan mundua eta ekonomi alorretik, politikariak politikaren

ikuspegitik... Partaide guztien iritzia entzun ondoren, ordu t'erdiko debata irekiko da, eta hainbat puntu konkretu aztertu eta eztabaidatuko dira bertan. Besteak beste honako galderak planteatu dituzte Elkarrikoek: 'Nafarroak, lurralde bakarreko autonomi gisa, badu etorkizunik?'; 'Amejoratu legea onartzeko modua demokratikoa izan zen?'; 'Nafarroak zer nolako harremanak izan behar ditu EAE, Iparralde eta Estatuarekin?'; 'Nola elkartu nabarristak eta abertzaleak?'; 'Nork eta nola erabaki behar du Nafarroaren etorkizuna?'. Topaketak bi ordu t'erdiko iraupena izanen du eta publikoari irekia izanen da.

### Tutera

#### Ezkontza zibilak ospatzeko dira laister udaletxean

TUTERA

Ezkontza zibilak udaletxean egiteko lehen pausua eman du Tuterako udalak, eta aste honetatik aurrera, ostiral zein larunbata, egin daitezke horretarako eskariak. Ezkontzak udaletxeko areto nagusian egingo dira, eta alkatea izango da horretarako arduraduna. Bera egon ezean, zinegotzi batek egin beharko du ezkontza. Espainiako Gobernuaren lege berriak baimendu ditu udal ezkontza hauek, eta Tuteran izan da aitzindaria Nafarroan lehen pausua ematerakoan.

Horretarako, arau batzuk araukeztu ditu Jose Antonio Perez Sola alkateak. Horien artean, azpimarratu behar da ezkontza burutu ahal izango dutela erakunde juridikoaren onspena duten bikoteek, Kode Zibilaren arauak betetzen dituztela ziurtatzeko. Halaber, udalak eduki beharko ditu bere eskutan epaitegiak bikoteari buruz igorritako datuak. Hori behin izanik, alkatearen aurrean ezkontza ospatzeko eskaera aurkeztu beharko dute ezkontzideek. Bi egun —ostiral eta larunbata— izango dituzte horretarako, eta ordutegi zehatza: ostiralean 18.00etatik 19.30ak bitarte, eta larunbatean, 12.30etatik 13.30etara.

Hilabeteko aurrerapenarekin aurkeztu beharko da, nolahi ere, eskaera, eta aretoaren dekorazioa bikotearen esku izango da, hala nahi izanez gero. Halaber, eskaera egiten dutenek izango dute gerta litezkeen kalteen erantzunkizuna, eta debekatuta dago arroza edo antzeko zerbait botatzea bai areto barruan nola inguruan. Tuterako udalak dohain eskainiko du zerbitzu hau.

Tutera izan baldin bada lehendabizikoa, Iruñeko udala azkenotakoa izan daiteke, Santiago Cervera alkatetzarako UPNren hautagaiak azaldu duelako iraila baino lehen ez direla egingo. Aitzakia paratu du Cerverak hainbat gauza aztertu behar direla ezer erabaki aurretik, eta ekitaldia 20.000 pezeta inguru kostako dela dio. Nolanahi ere, ez zuen oso jarrera ona erakutsi alkategaiak. «Ez dugu udaletxea ezkontzak egiteko fabrika bihurtu nahi, eta hiru edo lau baino ez dira egingo egunero». Garbi dago, beraz, printzipioz ez dagoela borondate handirik ekitaldi hauek egiteko.

Gogoratu behar da, hala ere, edozein bikotek egin dezakeela horretarako eskaria, eta nahikoa dela horretarako ohizko biderei jarraitzea: epaitegira joan, eta nahi den udalean ezkontzeko asmoa azaldu.

**G**eobiologia edo bizilekuaren zientzia zer den gutxi jakingo dute. Hala ere, bada Nafarroan, baita Euskal Herri osoan ere, geobiologiaren esparru zabala aztertzen eta ikertzen duen talde bat. Geobiologiaren oinarri nagusia bizitza da; horren kokapenak eta materialak, besteak beste, bertan bizi den jendearen bizimodua baldintzatu egin dezakete, geobiologo ustez.

# Geobiologia, bizilekuaren zientzia

Etxeak eraikitzeke filosofia aintzinako tradizioaren azken ikerketen arteko zubia da


EDURNE ELIZONDO / IRUÑA

Geobiologia zer den dakitenak gutxi izango dira, ziurrenik, Nafarroan. Zientzia honi buruz zer edo zer entzungo zuten batzuek, noizbait, baina geobiologiaren nondik norakoetan gehiegi sakondu gabe. Izan ere, Nafarroan, hogeita hamar bat lagunek baino ez dute geobiologia edo bizilekuaren zientzia aztertzen. Nafarroan esparru hori ikertzen dutenak bat da Yuka Guembe geobiologoa eta bizilekuaren zientziaren munduaz hainbat argibide eskaini dizkio EGUNKARIARI.

Zer da geobiologia? Guemberen arabera zuzenenak diren definizioek zera diote: geobiologia aintzinako tradizioaren eta azken ikerketa zientifikoen arteko zubia da. Jakinduriaren adar honen arabera, bizilekuak, etxea eraikitzeke erabilitako materialak, bere kokapenak, garrantzi handia dute. Material egokiak ez erabiltzeak edo kokapena gaizki aukeratzek, gizabanakoen oinazea erakar dezakete askotan. Halaber, geobiologiak lurretik ateratzen diren energien eta gizabanakoen arteko harremanak aztertuko ditu. Lurreko zein kosmoseko erra-diazioek eta giza-kiak berak sortutako energiek eragina dut gizabanakoaren oreka eta osasun fisiko eta mentala.

Definizio orokorrak alde batera utzita, eguneroko bizitzan geobiologiak duen edo izan dezakeen eraginaz mintzatu da Yuka Guembe. Mariano Bueno geobiologoaren eskutik ezagutu zuen Guembek bizilekuaren zientzia eta azken hiru urteetan, Nafarroan geobiologiaren ezagutza zabaltzeko asmoz aritu da lanean. Mariano Buenok sortu zuen Ikasketa Geobiologikoen Zentroko (GEA) kidea da Guembe. Mariano Bueno geobiologiaren aitzindari da Espainiako Estatuan.

Geobiologiaren auzian murgilduz, bizilekuaren garrantzia azpimarratu du Guembek. Bere ustez, bizilekuaren kokapena funtsezkoa da eta egokiarena, etxea eraiki aurretik, ezarriko den lekua ongi aztertzea izango litzatekeela azpimarratu du. Hala ere, azterketa egin ezean, badira, Guemberen iritziak, gizakion bizimodua hobetzeko har daitezkeen hainbat neurri. Zentzu honetan, ohearen kokapenak berebiziko garrantzia du geobiologia



Geobiologia etxe osasungarriak eraikitzeke filosofia da.

tresna elektrikoek ere eragin kaltegarria dute osasunean eta luzarora minbizia ere sor dezakete. «Telebista aurre-aurrean hainbat ordu egoteak ondorio larriak izan ditzake». Kutsadura elektromagnetikoaren esparrua sakonki aztertu duen geobiologoa Raul de la Rosa izan da.

**ARKITEKTURA BIODIMATIKOAREN ALDE** Surya elkarrekin geobiologiari buruzko ikastaroa antolatu zuen joan den asteburuan eta Guembek azaldu duenez, nahiz eta jende ororentzat antolatu, «arkitekto eta etxegileak izan dira protagonista nagusiak». Izan ere, geobiologiak arkitekturen kokapenak guztion bizimoduan zer eragin duen jakin dezaten funtsezkoa da.

Arkitektura bioklimatikoa, oro har, etxeak eraikitzeke material garbiak erabiltzen ditu, toxikotasunik gabekoak. Zementua oso kaltegarria da geobiologo ustez eta honen ordez, tapial, termobuztina edo erre gabeko adreiluen, pezuen erabilpena aldarrikatzen dute geobiologoek. Etxea margotzeko pintura ere kontu handiz aukeratu behar da, Guem-beren ustez. Pinturak toxikotasun handia du eta paretari ez dio amasarik hartzen uzten. Horren ordez, margo naturala erabiltzea gomendatzen du Guembek.

Arkitektura bioklimatikoa, halaber, garrantzi handia ematen dio eguzkiari eta etxeak ahalik eta eguzki ordu gehien izan dezan ahalegintzen da bereziki. Norabidea ere oso kontuan hartzekoa da, eta ohearen buruak iparralderantz zuzendua egon behar du.

Guembek azaldu duenez, arkitektura bioklimatikoa egiten duten arkitekto anitz ez dago, baina badira batzuk. Suryak antolatutako ikastaroan, hain zuzen ere, Manuel Reboledo arkitektoa izan zen eta honek hamabost bat urte darama etxe bioklimatikoa eraikitzen. Euskal Herrian ere, Alberto Agirre arkitektoak 'etxe naturalak' eraikitzen ditu. Arkitektura bioklimatikoa lotuta, nork bere etxea eraikitzeke aukera ere aipatu du Yuka Guembek, beti ere, material garbiak erabiliz.

—Hartmann doktoreak aurkitu zituelako dute izen hori—, sare modukoa osatzen dute eta lurra haizea hartzen du bertatik. Osasunerako kaltegarriak diren gasak ateratzen dira. Lerro bakar batek ez du kalte handirik egiten baina lerroak gurutzatzen direnean, kalte handia izan daiteke. Normala, bi metroko distantzia dago lerroen artean eta bakoitzaren zabalera 0,25 metrokoa da. Guemberen ustez, ohe azpian ur-zain edo Hartmann lerro bat egoteak, buruko edo bizkarreko mina, alergiak eta beste hainbeste oinaze sor dezake, baita minbizia ere.

Ur-zain eta Hartmann lerroez gain, kutsadura elektromagnetikoa ere kontuan hartu eta aztertu egiten du geobiologiak. Guembek azaldu duenez, entxufeek, tentsio altuko kableek eta etxeko



Gaur egungo eraikuntzak ez du inolaz ere inguruarekiko errespetua.

**T**xinatarren aspaldikoan arabera, etxea egiteke tokirik egokienak hauek alde guztietatik ongi bestuak, ura eramatekeekin, eta haize ez oso indartsua.

# Geomante txinatarrak

A. B. / IRUÑA

Gaur egungo geobiologiak energia indarrak eta magnetismoak aurkitzeke azken-azkeneko metodoei heldu baldin badie ere, ezin da inolaz ere ahaztu Txinan duela milaka urte ezagunak direla etxeak ongi eraikitzeke bideak, testu klasikoetan jandakiko ongi zehaztuta daudelako

«Feng shui etxea edota hilobia eraikitzeke tokia aukeratzeko lantzen diren sinismenak dira», gai honi buruz klasikoak den E.J. Eitel apaiz ingelesaren artikuluan irakur daitezkeen. Sinismen horiek guztiak estuki oso lotuta daude naturari buruz txinatarrek duten filosofia bitxiarekin.

Ez da inolaz ere ahaztu behar txinatarrendako Zeru dela ideala, eta Lurra haren kopia ziztrina besterik ez. Zeruak eta izarrek funtsezko eragina dute lurra aurki daitezkeen elementuetan, eta hauek, era berean, bizidunengan. Gainera, txinatarrendako, hildakoen arimak urteetan ibiltzen dira etxeetan bueltatzen, eta, hori dela medio, bizidunen zoria haren esku egoten ohi da.

Ez da harrigarria, beraz, hilobiei izugarriko garrantzia ematea. Hilobia, horrela, ez da sekulan egongo kalte ekar lezakeen eraginaren menpean. Nola lortu? Badira hainbat irizpide, jarraitu behar diren irizpideak. Lehendabizik, kontuan hartu behar da luraren gainean bi korronte magnetiko direla, bata positiboa (aldekoa) eta bestea negatiboa (kontrakoa). Lehendabizikoari Dragoi Urdina esaten zaio, bigarrenari Tigre Txuria. Beraz, toki egokia izango da

Feng shui izeneko teoriaren oinarriak.

Askotan sinismen funsgabe iritzi baldin badiete ere, Song dinastian (1126-1278 K.o.) bizi zen Zhu He izeneko idazleak, kasu, zehaztu zituen Feng shui-ren metodoak.

«Feng shui etxea edota hilobia eraikitzeke tokia aukeratzeko lantzen diren sinismenak dira», gai honi buruz klasikoak den E.J. Eitel apaiz ingelesaren artikuluan irakur daitezkeen. Sinismen horiek guztiak estuki oso lotuta daude naturari buruz txinatarrek duten filosofia bitxiarekin.

Ez da inolaz ere ahaztu behar txinatarrendako Zeru dela ideala, eta Lurra haren kopia ziztrina besterik ez. Zeruak eta izarrek funtsezko eragina dute lurra aurki daitezkeen elementuetan, eta hauek, era berean, bizidunengan. Gainera, txinatarrendako, hildakoen arimak urteetan ibiltzen dira etxeetan bueltatzen, eta, hori dela medio, bizidunen zoria haren esku egoten ohi da.

«Feng shui etxea edota hilobia eraikitzeke tokia aukeratzeko lantzen diren sinismenak dira», gai honi buruz klasikoak den E.J. Eitel apaiz ingelesaren artikuluan irakur daitezkeen. Sinismen horiek guztiak estuki oso lotuta daude naturari buruz txinatarrek duten filosofia bitxiarekin.

«Feng shui etxea edota hilobia eraikitzeke tokia aukeratzeko lantzen diren sinismenak dira», gai honi buruz klasikoak den E.J. Eitel apaiz ingelesaren artikuluan irakur daitezkeen. Sinismen horiek guztiak estuki oso lotuta daude naturari buruz txinatarrek duten filosofia bitxiarekin.

«Feng shui etxea edota hilobia eraikitzeke tokia aukeratzeko lantzen diren sinismenak dira», gai honi buruz klasikoak den E.J. Eitel apaiz ingelesaren artikuluan irakur daitezkeen. Sinismen horiek guztiak estuki oso lotuta daude naturari buruz txinatarrek duten filosofia bitxiarekin.

bi energiak uztartzen dituen puntua —bi muinoen arteko puntua, mendizerra batek uzten duen txokoa...—. Hori horrela dela eta, erabat laua edo simetrikoa den tokia ez da inoiz ere toki ona izango, ez baita jakin ahal izango non dauden energiak. Halaber, tokia aukeratzeko lur gizonetako eta emakumezkoak bereizten jakin behar da. Muino nabarmenak gizonetako omen dira, eta ordokiak, aldiz, emakumezkoak. Hilobia edo etxea egiteke tokirik proposena izango da bi ezaugarriak nahastan dituen, proportzio jakin baten arabera.

Horri gehituta, naturaren arnasa hartzeko tokiak hartu behar dira kontuan. Naturak arnasa hartzen duen tokian mendizerrak izango dira, eta arnasa botatzen duen tokian zainak egongo dira, alegia, errekek, muinoak eta mendixkak. Arnasa hori funtsezkoa da toki bat osasungarria izan dadin, eta bilatu egin behar dago, beraz.

Soilik naturaren arnasa bil dezaketen tokiak, hau da toki guztietatik ongi babestuta daudenak, ura eramateke bideak dituztenak, haize ez oso indartsuen laguntzarekin, soilik horiek izango dira egokiak, hor ziurtaturik egongo delako naturaren arnasa. Toki horietan eraikitzeke, osoa, ondra eta oparotasuna ez dira faltako. Esan behar da linea zuzen guztiak arnasa gaiztoak dituztela euren baitan: horren kontrakoa metodorik onena zuzaitzak landatzea eta urtegi txikitzea izatea da.

Laburbilduz, oso nabarmenak dira toki proposak eraikinak egiteke. Zaldiaren ferraren forma hartzen duten tokiak, hau da, bi muinok paraleloki puntu bat inguratzen dutenean, oso osasungarriak izango dira. Oro kontuan hartzekoak dira, era berean, uhaldeak. Urak zuzen-zuzen egiten baldin badu ibilbidea, oso txarra da, baina kurba eta inguruak ugari badira, eragin ona ekarriko die bertako biztanleei. Halaber, mendien formak ere oso garrantzitsuak dira. Bost izan daitezke formak, eta bakoitzari sinbolo bat dagokio. Esate baterako, puntak dituztenen suaren sinboloa dute, eta forma luzea baina tontorra biribila dutenek, egurrarena. Biak elkarren ondoan izanik, arriskutsua izan daiteke oso inguru.

Esan beharrik ez dago soilik adituak diren kontrola ditzake guztiak. Horiek ziren aspaldiko geomanak, gaur egungo geobiologoek aitzindari zuzen-zuzenak. Haiek aspaldian izan zuten beren garai onena, nahiz eta herriaren sinismenean oso erroturik izan oraindik gaur egun. Gaurkoak sinismen guztien kontra ari dira...

mintzoak

# Bertsolari Txapelketa: Iazko bidetik aitzina

● Garizumak ihate aroari txanda hartu dion honetan, bere urteoroko bideari lotuko zaio Nafarroako Bertsolari Txapelketa, igandean, etzi, Alduden eginen den saioaren bitartez. Aurtengoa 24garren aldia da, gerra aurrekoa, 60garren hamarkadan eta 79tik honatakoak kontutan hartuz. Igandetik aitzinera 15 bertsolari saiatuko dira Bittor Elizagoien txapelkunari txapela kentzen. Danetara, beraz, hamasei gizon emakume lehiatuko zaizkigu apirilaren 2an Leiztan jokatu den Saio Nagusiaren bila.

Hondarreko urte luzeotan bezala, aurrean ere Nafarroako Bertsolarien Lagunak Elkarteak heldu dio antolatetaren zamari. Izanez ere, Elkarte horren eskutik ailegatu da gure herrialdeko bertsolaritzaren zuzperraldia, neka gabe lanean ariutu baita, eta, horren isla dela, gertatu zenari erreparatzea, hots, txapelgoak mugak hausti zituen: bertsolariek maila polita erakutsi zuten; saioetara jendetza handia hurbildu zen; nafar bertsotzaileen hein bateko mesfidantza beratu eta haren bertsotzaileak asetu zuten; azkenik, txapelketa gizarteratu zen komunikabideek, oro har, ohi ez bezalako jokabide ona azaldu zutelako. Aurrean joan den urtean erdietsitako errotu nahi dute hemengo bertsotzaileak aitzina egin dezan. Lontxo Aburuza Elkarteak idazkaria dugu, lana buru belarri egindakoa eta goranzko joeraren lekukoa. Aurtengo lehiaketak bi helburu ditu, Lontxok agertu bezala: «Batetik entzuleari begira zaleak, bertsotzailetan ez den arraiozarrak ere trankil dabil. Elizagoien ustez bi izen berri horiek maila ona emanen diote txapelketari eta aitorzen du. «Txapelketa gabe errazago kantatzen dela txapelarekin baino, aurtengo lana eustea baita. Horregatik neure burua konzentratu nahi dut, txapelgoarako bildu, gisa horretan ematen baitut nik nire maila».

Igande honetako kanporaketan zortzi bertsolari arituko dira: Xalbador urepeldarra; Alkhat iholdiarrak; Mihura azkaindarrak; Mendiburu Heletakoa; Manolo Arozena Lesakan bizi den goizuetarra; Xabier Silveira lesakar gaztea; Amaia Telletxea aranzarra eta, Xabier Legarreta aranotarra. Arratsaldeko 4etan da Aldudeko kulturetxean. Txango polita izan daiteke igande honetako: goizean Kintoako oihaneko barrena zangoak mugitu, eta, gero aipatutako lagun bertsotzaileak ikusi, Aldude bertan baitago, hurbil guztiontzat.

duten ala ez. Artean zaila izan da, alor guztietan gainera, eta bertsolaritzan ere bai, lan gorrak da. Gazteentzako erraza izaten da puntuaketa ona lortzea, lehiaketetan bidezkoletan ohiak daudelako, baina gero bertsolari izatea eta eguneroko lana plazaz plaza egitea, hori oso zaila gertatzen zaie».

Gaztetan ezaugarri preziazurri lotuta zazpi lagun agertzen dira

«Gaztetan ezaugarri preziazurri lotuta zazpi lagun agertzen dira bezala, aurrean ere Nafarroako Bertsolarien Lagunak Elkarteak heldu dio antolatetaren zamari. Izanez ere, Elkarte horren eskutik ailegatu da gure herrialdeko bertsolaritzaren zuzperraldia, neka gabe lanean ariutu baita, eta, horren isla dela, gertatu zenari erreparatzea, hots, txapelgoak mugak hausti zituen: bertsolariek maila polita erakutsi zuten; saioetara jendetza handia hurbildu zen; nafar bertsotzaileen hein bateko mesfidantza beratu eta haren bertsotzaileak asetu zuten; azkenik, txapelketa gizarteratu zen komunikabideek, oro har, ohi ez bezalako jokabide ona azaldu zutelako. Aurrean joan den urtean erdietsitako errotu nahi dute hemengo bertsotzaileak aitzina egin dezan. Lontxo Aburuza Elkarteak idazkaria dugu, lana buru belarri egindakoa eta goranzko joeraren lekukoa. Aurtengo lehiaketak bi helburu ditu, Lontxok agertu bezala: «Batetik entzuleari begira zaleak, bertsotzailetan ez den arraiozarrak ere trankil dabil. Elizagoien ustez bi izen berri horiek maila ona emanen diote txapelketari eta aitorzen du. «Txapelketa gabe errazago kantatzen dela txapelarekin baino, aurtengo lana eustea baita. Horregatik neure burua konzentratu nahi dut, txapelgoarako bildu, gisa horretan ematen baitut nik nire maila».

Igande honetako kanporaketan zortzi bertsolari arituko dira: Xalbador urepeldarra; Alkhat iholdiarrak; Mihura azkaindarrak; Mendiburu Heletakoa; Manolo Arozena Lesakan bizi den goizuetarra; Xabier Silveira lesakar gaztea; Amaia Telletxea aranzarra eta, Xabier Legarreta aranotarra. Arratsaldeko 4etan da Aldudeko kulturetxean. Txango polita izan daiteke igande honetako: goizean Kintoako oihaneko barrena zangoak mugitu, eta, gero aipatutako lagun bertsotzaileak ikusi, Aldude bertan baitago, hurbil guztiontzat.



## Frontoian galduta

**Galdera:** Den dena galdu diat frontoian, oh, oh, oh. Etxealde haundiko nire etxe maitea, sarobe aunitzetako nire artalde ederra, hesolaz hertsiriko barrutiak eta nire setazko alkondarak ere bai. Hau oro gertatzen zaidak frontoian aritzeagatik, oh, oh, oh. Norekin ezkonduko ote naizen orain? Bostetako trenera botako diat burua. Sol de Poniente dik izena. Ez duk izen nolana hiko eta hau oro gertatzen zaidak frontoian aritzeagatik, oh, oh, oh. Nola senda daiteke zaletasun hau?

**Erantzuna:** Juan Luis Gerarak eta 440k badute kanta bat La Gallera izenekoa, eta zure kasua kanta horretan bertsotan adi dezakezu. Badago telebistan iragarki bat Wolf kotxea saltzeko, eta hor ere zure kasua ikus dezakezu irudietan. Beraz, esan dezakegu Euskal Kultura unibertsala izatearenak ekartzen dituela munduko gaitz unibertsalak, eta ludopatia horietariko bat da. Hala ere Euskal Herrian apostuetara emana den jendeak sosaz aparte zerbait gehiago irabazi nahi du. Badirudi zenbait gauza esatean hanka motz gertatzen direla, eta uste osoko pertsona ez bagina bezala, esatearekin batera zerbait paratu behar dugula. Baieztapen hutsak hutsalak dira, eta sinetsiko badigute, sosa mahai gainean azaleratu behar. Gure usteen kontra apostu egitea da modu bakarra beti irabazteko. *Banengoen ba ni hori hola zela.* Oker nengoen eta sosa poltsikora edota zuzen nengoen baina sosik gabe. Ludopatiak sendatzekoak dira. Badira zenbait elkarte. Jar zaitez haiekin harremanetan.

**Galdera:** Lehendabiziko amodioa ez dela ahazten, ez dugula atzanduko esaten du tangoak. Eta tangoak amodio aferetan oso trebeak dira. Egia al da hori?

**Erantzuna:** Lehendabiziko amodioak ez direla ahazten, bai, baliteke. Batez ere harekin ezkondu edota uz-



Gure usteen  
kontra apostu  
egitea da modu  
bakarra beti  
irabazteko.

tartu baldin bazara, erantsiko nuke nik. Orduan, aisa zailagoa. Hala ere halako esaldi-errefrauepaia oso ironikoak izaten dira. Hori goiz jeikitzen denari Jaungoikoak laguntzen diolako bezalako da. Ironia hutsa, ironia besterik ez. Esaldi hori gogoko zuen ezaguna, jeneralean arratsaldeko hiruretan jeikitzen zen. Biskya gosalduta, VISA txartelarekin dirua atera, eta nesketara. Kasu hau kontutan hartuz gero, garbi dago Jaungoikoa arratsaldez ere aritzen dela.

**Galdera:** Angelita hil zorian dago. Penatan ito dio bihotza amorioak. Ni haren inude zaharra nauzu, eta otoitz egiten ari natzai, erreka-



'Grandville-n iruditan euskal errefrauek' liburuko irudi bat.

Lehendabiziko  
amodioak ez direla  
ahazten, bai, batez  
ere harekin  
ezkondu edota  
uztartu baldin  
bazara.

Andreari. 'Zeruan izarra, errekaldean lizarra'. Baina ez naiz oroitzen haurtzaroko konjuro hartaz, jentileek ibiltzen zutena. Konjuro harekin den-dena sendatzen zen. Ezagutzen al duzu?

**Erantzuna:** Alferrik da ahalegina, erreka Andreari ez zaio axolarik kristau baten bizitza.

## Klasiko bitxi arrant klasiko

Joxemiel Bidador

## Gerrikoren buruhaustea

Mutiloarraren dotrina liburua zentsurak debekatu zuen 1820an



Euskal herriko historiak aitzina jo izan duen ahala, berari eta bere hizkuntzari egindako justifikagabeko eraso bortitz izkutu eta agerikoak ugaritzen bide dira. Arabako kasua nabariena dateke, baina nonahi ere holakoak kausi daitezke. Gehixegi miatu edo arakatu beharra ez dago.

Euskaraz bizitzeko sortutako eragozpenak oro hamaika modu ezberdinez gauzatu egin dira. Literaturak ere, besteak beste, jasan behar izan zuen erdalen enbata, eta egun, Etxepareren lana ezagutzen badugu, ez da gauza bera gertatzen Logras, Echegaray edo Elsoren, demagun, idazkiekin. Bakoitzak bere kontuak atera bitza.

Euskal eskuidatzi ugari apalategi ahaztuetan gordetzen dira oraino, hezetasunak jan ez dituen bederen. Batzuetan diru aferak, besteetan interes exkasa..., arrazonamenduak badira laketgarri nahi adina. Oraiko honetan, horrelako adibide berezi bat ekarriko dugu literatur txoko estonagarri honetat.

Ugariak baino ugariagoak kristau dotrina gaitzat duten euskal lanak. Gehienak, egia esan behar bada. Eta horrelakoetan, zensura eklesiastikoak ere bazauden, oroit bestenak Larramendik Mendibururen **Katexima luzea** eskuidazkiarendako eginikoa, horren latza ezen lanaren arrastorik ez direla gertatzen.

Alabaina, sekula ez da gertatu Gerrikori gertatutakoa, inoiz euskara bera zensuraren arrazoi bakarra suertatu ez baita. Nola uler euskara zensuragarria dela lan baten argitalpena ukatzeko lai?

Jose Inazio Gerriko (1740-1824) Gipuzkoako Segura herrian sortu zen, nahiz izatez Mutiloarra izan. Bere ikasketak Españan burutu ostean Mutiloara apaiz abiatu zen betiko. Bere lan bakarra 1805. urtean inguru ondu zuen. Bada kristau dotrina eta historia sa-

kratuaren azalpen luze xamarrak, ohizko itaun erantzun molderi jarraikiz.

Gerriko ohizkoak ziren zensura oztogogari guzietatik iragazten hasi zen. Lehendabizikoa Gipuzkoako apezgoaren Arziprestazgo nagusiarena, aisa pasatu zuena; geroxeago Iruñeko ohizko epaitegi eklesiastikoaren onarpena arazorik gabe erdietsi zuen.

Frantsesa aldiareki prozesuak etena jaso zuen, baina gerra amaitu zenean, lizentziak hatzmateari berriro ekin zion gogor gure Gerrikok.

Orduan famatua zen Fray Francisco Echeverria Azkoitiko frantxiskotarrak bere on eritziak jakinarazi zizkion, eta hau guztiarekin erret kontseiluaren onespina zen argitara eramateko falta zitzaion gauza bakarra. Baina den dena hain errez bide zenean, kontseiluak erderazko itzulpen osoa eskatu zion Gerrikori bere lana epaitu ahal izateko.

Honek arrazoi frango erabili zituen bere burua defenditzeko eta bere lanaren balioa bermatzeko. Zensura gehiago eskatu zituen, euskaldunak barne, eta lan osoa ez itzultzeko eskatzen du. Hala ere, honek ez dio ezertarako ere balio, eta fiskalak berean tema jarraitu zuen. Azkenekoz, lanaren argitaratzeko lizentzia ukatzen da 1820. urtarilaren 20an.

Urte batzuk beranduago bai agertu zela, nahiz Gerriko gixajoak ikusi ere ezin zegoeneko hila baitzen. Lanaren izenburu osoa hauxe dugu: **Cristau dotriña guztiaren esplicacioaren sayaquera, euscarazco platica edo doctriñetan partituro, Jose Ignacio de Guerrico Mutiloco beneficiaduac eguiña**, Tolosan agertu zen 1858. urtean Mendizabalen moldiztegi. Bi ale mardulak ziren, bien artean mila orrialdetik gorako lana eskeiniz. Harrezgeroztik ez da berriro argitaratu. Egun ere zensura ote?





■ Nafarroako Banakako txapelketako laugarren ihardunaldiko partida, 1995eko otsailaren 11an jokatu. Javier Gamazo, 1.820 ELOkoa-Rafael Ruiz Escobar, 2.025 ELOkoa.

1.e4,e5; 2.Zf3,Zc6; 3.Ab5,Ac5; 4.0-0,Zd4; 5.Zd4,Ad4; 6.c3,Ab6; 7.d4,c6; 8.Ac4,d6; 9.e5,e5; 10.Dh5,De7; 11.Ag5,Zf6. Egokia al da mugimendu hau? Peoien egitura ahuk daiteke. Eraso egiteko aukera da oreka-bidea. 12.Dh4,Ae6. Presioa arindu nahian, beltzek posizio hobea lortzeko aukera eman diete txuriei, pieza aldaketak egin ondoren. 13.Af6,Df6; 14.Df6,f6; 15.Ae6,e6. Hainbeste peoiekin zaldiak mugikortasun gehiago dauka alfalak baino. Peoien ahulezia nabari dezakete beltzek.

16.Zd2,Gd8; 17.Zc4,Ac7; 18.aG-d1,0-0; 19.f3,b5; 20.Ze3,Ab6; 21.Ef2,f5; 22.Ee2,f4; 23.Zg4,Ac7; 24.Gd8,Gd8; 25.Gd1,Gd1; 26.Ed1.

Ikus koadroa. Taula garbitzeak txurien lana erraztea besterik ez du egin. 26...Ef7; 27.Ee2,a5; 28.Zf2,Ee7; 29.Zd3,Ef6; 30.Zc5,Ef7; 31.Ef1,Ee7; 32.Zd3,Ac6; 33.b4,b4; 34.b4,h5; 35.g3,Ef6; 36.a3,Eg5; 37.Eg2,Ef6; 38.Eh3,Eg5; 39.Zc5. Toki guztiak babestur ezinean, defentsa apurtuta dute beltzek. Alfal-zaldia trukeak ere ez die balio. 39...Ae7; 40.Ze6 xa, Ef6; 41.Zc5,Eg5; 42.Ze6 xa,Ef6; 43.Zc5. Lana eskatzen du bukaera honek. Hala ere, beltzek egoera latza luze pairatu baino lehen, amore ematea nahiago izan zuten.





1990ean sortu zen Sagartze enpresa Donibane-Garazin, sagarno produkzioa bultzatzeko.

**S**agartzea elkarteak bere urteko biltzar nagusia egin zuen duela aste bat Donibane-Garaziko kooperatiban, eta joan den urteko harat-honatak luzaz aztertu zituen. Finkatutako helburuak lortu arren, lan asko gelditzen da egiteko, ekoizpenaren abiatzea baizik ez baita azken urte honetan egin den sagarno.

## Egiazko sagarno produkzioa

LUTXI FOURCADE / BAIONA

Alabaina bilera egin da egoera berezian, aurten sagarno botila gutti eginen baitu elkarteak. Hots, aurreko urtean 11 tona sagar bildu bazituen elkarteak 10.000 botila egiteko, joan den larrazkenean sagar guttiago zen eta 5.500-6.000 botila baizik ez ditu eginen, martxo ondarretik aitzina salgai jartzeko. Hala ere, tokiko sagar motarekin sagardoa egiteko helburua atxikiko duela elkarteak argi eta garbi adierazi zuen.

Hots, Sagartzea sortu zen 1990eko otsailean, «ohidurazko eta tokiko sagarren ekoizpena» bultzatzeko, sagarno egiteko batez ere. Hots, bere ustez sagarra eta bere balioztapenari esker, diru iturri osagarria aurki dezakete laborariek, laguntza ekarri mendiko etxalde txikiak mantentzeko. Helburu bertsuarekin elkartu ziren barnealdeko laborariak, baita ere laborari ez direnak, nahiz eta batzuek lekuko motak landatu zituzten ondarearen axolaz.

Zendako sagarra eta sagarno? Ohartu baitziren etxalde anitzen inguruan sagar ondoak bazirela lekuko sagar motarekin. Bestalde, argi dago lehen ere sagarno egiten zen etxaldeetan, baina bakarrik etxean edaten zena, ez salgai jartzeko. Hortik abiatuz, batzuek pentsatu dute

aterabidea menturaz bazela sagarrarekin, sagarno egiteko eta saltzeko, baina ez edozein sagarrarekin baizik eta tokiko sagar motarekin.

**SAGAR IZEN AMESGARRIAK** Sagar mota desberdinen bilketan, mota batzuk errazki aurkitu bazituzten

ere, beste batzuk, aldiz, ia osoki desagertuak ziren. Elkarteak hasi zen sagarrondoak txertatzen desagerpenari aurre egiteko, eta 20.000 txerto eginarazi zizkion Lekoneko landaretegiari hautatutako lehengo motekin: Anisa edo Apez sagarra, Eztika, Mamura, Peatxa, Gordin xuria edo Ondo motxa izeneko sagarrak.

Era berean, ikasle batek sagarnoaren merkatua ikertu zuen eta 500.000 pintako merkakua izan zitekeela aurkitu zuen.

## Ohidura arrapizten

L.F. / BAIONA

■ Sagarno egiteko sagarrondoak luzaz Euskal Herriko erregea izan da eta gure eskualdeko laborantzian ere toki garrantzitsua zeukan. Hots, A. Chevallier ikertzaileak 1942an plazaratutako inkestan sagarraren tokia argi adierazi zuen: «Lehen denboratik, Euskaldunek osatzen zuten Galiako Pirinioen ekialdeko zatian eta Espainiako ipar-mendebaldeko gunetan bizi zen nazioa. Bazuten, eta gaur egun ere atxiki dute, mintzaira nahiko berezia non sagarra adierazteko 'sagarra' erabiltzen duten; izenak latineko *sicera*-ren antza du eta hortik dator frantsesez 'sidre' eta 'cidre' edo ingelesez 'cidar'». Urrunago irakur zitekeen: «Zorrigaitzez ez dugu dokumenturik azaltzeko noiz zen abiatu sagarrondo ekoizpena, baina ez da dudarik aspalditik egiten dela. Erdi aroan, Bizkaiak sagarno esportatzen zuen Normandia eta

Ondoren, elkarteko 30 partaidek 30 hektarea landatzeko proiektua abiatu zuten, jakinez hektarea bakoitzak eman deza-keela 20 bat tona sagar. 1994. urtean 9.000 arbola inguru landatu zituzten 17 etxalde desberdinetan. Oztibarre, Garazi eta Baigorritik abiatu bazen ere proiektua, gaur egun Hazparne eta kostalderaino hedatzen dira sagarrondoak, nahiz eta argi dagoen elkartearentzat merkatua mugatua dela eta landatze plan-gintza 30 hektareatan mugatuko duela.


Sagarnoari dagokionez, orain arte egindako ekoizpen osoa ia saldu arren, sagarnoaren egiten oraindik ere ikasi beharra badutela aitortzen du elkarteak. Entseguak egin ditu orain arte eta datorren larrazkenetik aurrera jarraituko du, nahiz eta Baigorriko sotoa utziko duen ekoizpena egiteko Oztibarre aldean, Do-naixtin.

Ekoizpena hobetzeko eta landatzeak segitzeko teknikaria kontratatu du elkarteak aurten, denbora laurdenez. Bigarren landatze zatia jarraituko du, aurten 30 hektarearen proiektua beteko baitute, eta ondoko urtean egituratzeko arazoak aztertuko ditu elkarteak. Mugaz bestaldero bi laborarirekin ere proiektua dauka elkarteak. Elizondotik hurbil bi laborarik antzeko proiektua abiatu dute, lekuko sagar mota zaintzeko eta landatzeko. Sagarnotegia egin ondoren, sormarka (jatorri izena) lortzeko indarrak elkartu nahi dituzte mugaz gaindi. Haien arabera, modu hobereana izanen da euskal produktuaren eta oinarrien defenditzeko, batez ere jakinez Gipuzkoan egiten den sagardoa Normandia, Britainia edo Asturiasko sagarrekin egina dela.

Mediterraneoraino».

Pabeko departamenduaren artxiboak aztertuz ere, azpimarratu behar da XVIII. mendean sagarra diru iturri garrantzitsua zela laborarientzat. Hala ere, sagarno ekoizpena tipitu egin da XVII. mendetik. Berrehun urte geroago, XIX. mendearen erditik eta batez ere XX. mendearen lehen erdian, gauzak okertuko dira. Garai horietan, diru iturri handienari lehentasuna eman zioten eta laborarien ustez sagarrondoak mozkin txikiagia eskaintzen zuela eta, ardoaren produkzioari lehentasuna emanen diote, emeki bada emeki sagarnoaren ekoizpenari amaiera emanez. Hala ere, euskaldunek jarraituko dute sagarno egiten etxeko sagarrekin baina egindako produktua etxean edanen da.

«Istoria berezi honengatik, sagarno ekoizpenaren garapena eta Euskal Herria bereizezinak dira» Sagartzea elkartearen ustez.



Iaz 11 tona sagar ekoiztu zuten.

## «Ia denak txaloak izan dira»

A.BARANDIARAN / ARANTZA

Asegarce enpresak omenaldia eskainiko dio Antton Maiz Arantzako pilotari handiari bihar, larunbata, pilota uzteko erabakia hartu duela eta. Binakako bost txapel buruan, jatorrasuna eta estimua Euskal Herria osoan erein eta jasotakoa, azken urteotako atzelaririk indartsuenetakoa pilotazaleen txaloa —beste bat— jasoko du horrela Bilboko Deportivo frontoian.

**EGUNKARIA.**— Zer sentitzen duzu Asegarcek prestatu dizun

esan nion, eta oso ongi hartu dit. Omenaldia egingo dit, eta denak gustora.

**EGUNKARIA.**— Aspertuta zeundela diozu?

**MAIZ.**— Ni oso gustora ibili naiz hor, baina egun batean gelditu egin behar izaten da, eta 44. urtean nago. Beraz, orain erabaki dut.

**EGUNKARIA.**— Zuk hartu duzu uzteko erabakia, beraz, ez dizu enpresak ezer esan?

**MAIZ.**— Bai, nik harturiko erabakia da. Oraindik ekainera arte banuen kontratua, eta enpresak ez dit deus esan. Baina

zenuen txapela izan zela politena.

**MAIZ.**— Neretzako garaipenik handienetakoa izan da hori. Ez nuen pentsatzen nik buruz burukoan jokatu nuenik, eta hori irabazi nuen profesionalera pasatu eta lehenbiziko urtean. Hortik aurrera oso ongi ibili nintzen.

**EGUNKARIA.**— Zurekin jokatuz izan dutenek askotan esan dute lasaitasun itxura izugarria ematen zenuela, eta zurekin aurrean jokatzen zuenak lasai jokatzen zuela. Lasaitasun hori itxura bakarrik edo beneta-

lota asko mugitu dela. Gu hasi ginenean, orain dela hogeitau urte, jende asko ibiltzen zen, baina gero izan dira urteak jendea nahiko justu eta larri ibili dena. Azkenotan asko mugitu da berriro, telebistarekin-eta, eta pilotak asko irabazi du.

**EGUNKARIA.**— Pena ere ez al dizu ematen, garai on hauek gehiago ez gozatzegatik?

**MAIZ.**— Jakina, orain dela hamar urte izan balitz, neretzako askoz hobe, baina orain ikusi dut pilota aurrera doala, eta gustora nago.

**EGUNKARIA.**— Zer egingo duzu pilota utzita?

**MAIZ.**— Hemengo mutikoeekin aisago ibiliko naiz, eta gainerakoan baserrian beti bada lana, eta bertan ibiliko naiz.



Maiz II.a eta Errandonea: bi belaunalditako atzelari handiak.

omenaldiaren aurrean?

**ANTTON MAIZ.**— Momentuz urduri nabil, egun hori ez da eta oso ona izanen neretzako. Denak hor egonda, nere agurrean... Hala ere, gustora, oso gustora egonen naizela uste dut, gauza polita izanen da eta.

**EGUNKARIA.**— Hogeitau urte emanda, askotan izango zenuen buruan noizbait etorriko zela egun hau.

**MAIZ.**— Dudarik ez dago, etorri behar zuen. Hogeitau urte egin ditut pilotan, eta pentsatzen nuen lehentxeago etorriko zela. Gainera, neronek esan dut jada aspertuta nengoela, ikusten nuelako gazteei bide eman behar zitzaizela. Orduan pentsatu nuen gelditzea. Enpresari

pentsatzen nuen bukatu behar nuela, aski nuela.

**EGUNKARIA.**— Nolanahi ere, marka ederra paratuta uzten duzu pilota, bost aldiz lortu duzulako binakako txapela. Hasi zinenean uste al zenuen horrelakorik eskuratuko zenuela?

**MAIZ.**— Egia esan, hasi nintzelarik ez nuen horrelakorik pentsatzen. Gero ikusi nuen defenditzen nintzela aise, eta erraz ibiltzen nintzela, eta etorri ziren garaipenak. Baina aurrenetik ez nuen pentsatzen horrelako garaipenik izanen nuela.

**EGUNKARIA.**— Hala ere, askotan esan duzu Salbidearen aurka bigarren mailan irabazi

koa izan da?

**MAIZ.**— Nere prozesioa barrenetik izaten nuen nik, baina beti nahiko lasai jokatu izan dut. Nere aurrelariak ez diet sekulan hitz bat ere esan. Aldrebes, beti animatu ditut eta hori ona izango zen...

**EGUNKARIA.**— Taldekide ona izan zara, beraz.

**MAIZ.**— Beno, besteek horrela esaten dute...

**EGUNKARIA.**— Hasi zinenetik nahiko aldaketa handiak bizi dituzu pilotan, azken urteotan bereziki. Ikuspegi polita izango duzu aldaketa horiek aztertzeke.

**MAIZ.**— Azken bi urte t'erdia hauek izan dira oso onak pilotarendako, zertaz ikusi da pi-

**EGUNKARIA.**— Lagun asko utziko dituzu, denek aipatzen dutelako zure jatorrasuna eta zintzotasuna. Zuretzako ere jatorra izan da pilota?

**MAIZ.**— Pilotak anitz eman dit niri, eta, ez dakit zergatik, baina jendea ere nerekin hagitz ongi portatu da beti. Sekulan ez dut izan kexurik, eta txistuak ere arrunt gutxitan entzun behar izan ditut. Ia dena txaloak izan dira, eta hori neretzat izan da gauza izugarria.

**EGUNKARIA.**— Emozionatuko zara larunbatean?

**MAIZ.**— Bai, beldur handia dut, eta uste dut baietz, emozionatuko naizela. Gainera hemendik ere autobusak joanen dira, eta jende ezagun asko izanen da. Neretzako izugarria izanen da, baina ea ongi pasatzen dugun.

## Antton Maiz

PILOTARIA



«Pilotak anitz eman dit, eta ez dakit zergatik, baina jendea ere nerekin hagitz ongi portatu da beti».

SOSLAIA

### Arantzako mutikoeekin

Gizon puska izateaz gain, gizon on puska ere izan da beti Antton. Oraindik gaur egun umiltasunez hitz egiten du lortutako bost txapelez eta frontoi guztietan eskuratu dituen garaipenez, eta bihar ko omenaldia dela-eta arrunt urduri dagoela aitortzen du. «Egun zaila izanen da neretzako». Hemendik aurrera baserrian eta herriko mutikoeekin ariko da burubelbarri, Arantzako frontoian etorkizuna ikusi du eta. «Badira pare bat, 15-16 urtekoak, nahiko ongi jokatzen dutenak. Haurrak ere badira jokatzen, eta hortik aterako dira pilotariak».

## NOSKI JATOR

© Zaldí ER02

"ZIZAEBASLE" ETA "ONDARTZAOKUPATZAILEEN" ARTEKO AZKEN BORROKA.

Gure eroea, Nafarroa kapitaina, sagardotegira joan da.

